

Ordiziako Udala

2023IOSB0016

Ordizian, **2023ko azaroaren 28a** UDALBATZARRAK **Ohiko bilkura** egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

*En Ordizia siendo el día **28 de noviembre de 2023** se reúne en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial el **AYUNTAMIENTO PLENO EN Sesión ordinaria** con la asistencia de las siguientes personas:*

LEHENDAKARIA:

Adur Ezenarro Agirre jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Maitane Alvarez Garciandia	EH BILDU ORDIZIA
Jon Ander Caballero Zubelzu	EH BILDU ORDIZIA
Ainhoa Jimenez Goñi	EH BILDU ORDIZIA
Itsaso Muñoz Rodriguez	EH BILDU ORDIZIA
Manex Berzosa Irastorza	EH BILDU ORDIZIA
Marta Ortega Echeverria	EH BILDU ORDIZIA
Joseba Aranburu Ganzarain	EAJ-PNV
Gregorio Iruretagoyena Echaniz	EAJ-PNV
Arantxa Arocena Gomez	EAJ-PNV
Xabier Crespo Ibarrolaburu	EAJ-PNV
Agurtzane Antoñana Arizmendi	EAJ-PNV
Leire Bidaguren Pujana	EAJ-PNV
Miren Alazne Sukia Galparsoro	ORDIZIA ORAIN -ELKARREKIN PODEMOS
Viviana Angélica Murillo Cazar	ORDIZIA ORAIN -ELKARREKIN PODEMOS
Ana M. Sanchez Herraiz	GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Carlos Castaño Arias EAJ-PNV


IDAZKARIA:

Ainhoa Esnaola Zubeldia and.

KONTUHARTZAILEA:

Irune Soto Cotorro and.

BESTE BERTARATZE ETA IRTEERAK:



Ordiziako Udala

2023IOSB0016

AZTERTUTAKO GAIAK:

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

1. 2023ko urriaren 26an egindako Udalbatzarraren akta zirriborroa onartzea.
- 2.- “Ordizia-Beasain mugaketa” espedienterako batzordearen izendapena.
- 3.- Ordenantza fiskalen akats zuzenketa
- 4.- Kontu-hartzailearen ingerak, urriari dagozkionak
- 5.- Urrian zehar Alkateak sinatutako dekretuen zerrenda.
- 6.- EH BILDUK bide ematen dion Euskal Herriko Pentsiondunen Mugimenduak aurkeztutako mozioa.
- 7.- EAJ-PNVk aurkeztutako mozioa: Euskal zaintza eredu sendo, eraldatzaile, feminista eta komunitario baten aldekoa
8. Galde-erreguak.

- 1.- *Aprobación del acta de la sesión del Ayuntamiento Pleno celebrada el 26 de octubre de 2023.*
- 2.- *Nombramiento de la comisión para el expediente de “Deslinde Ordizia-Beasain”.*
- 3.- *Corrección de errores de las ordenanzas fiscales*
- 4.- *Nota de reparos de la Interventora correspondientes al mes de octubre*
- 5.- *Relación de decretos firmados por alcaldía.*
- 6.- *Moción suscrita por el Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria que EH Bildu presenta al pleno.*
- 7.- *Moción presentada por EAJ-PNV. en defensa de un sistema de cuidados vasco sólido, transformador, feminista y comunitario.*
- 8.- *Ruegos y preguntas*

PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:


GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK:

ORDUTEGIA:

HASIERA: 18:00etan.

AMAIERA: 19 etan.



Ordiziako Udala

2023IOSB0016

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

Abierta la sesión por parte del presidente, se da lectura al primer punto del orden del día.

1.- 2023ko urriaren 26ko ohiko Osoko Batzarrako akta zirriborroa onartzea.

1.- Aprobación del borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 26 de octubre de 2023.

Proposamena

Propuesta

2023ko urriaren 26ko ohiko Osoko Batzarrako akta zirriborroa onartzea.

Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria celebrada el día 26 de octubre de 2023.

Eztabaida

Debate

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez dira izan.

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen: no ha habido.

Bozketa:

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 16 (EH BILDU ORDIZIA) 7, EAJ/PNV 6, ORDIZIA ORAIN-ELKARREKIN PODEMOS 2, GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

2.- “Ordizia-Beasain mugaketa” espedienterako batzordearen izendapena.

2.- Nombramiento de la comisión para el expediente de “Deslinde Ordizia-Beasain”.

Proposamena


Propuesta

GAIA: ORDIZIA-BEASAIN MUGAKETA ESPEDIENTERAKO BATZORDEA.

ASUNTO: COMISION PARA EXPEDIENTE DE DESLINDE ORDIZIA- BEASAIN.

2017ko apirilaren 7an, Beasaingo Udalaren osoko bilkuraren erabakiaren ziurtagiria sartu zen udal honetan,

En fecha 7 de abril de 2017, tuvo entrada en este Ayuntamiento certificación del acuerdo plenario del Ayuntamiento de Beasain en relación con el deslinde de los



Ordiziako Udala

2023IOSB0016

Beasaingo eta Ordiziako udal-mugarten mugaketari buruzkoa, zortzigarren mugarriari dagokionez.

Bertan, bi udal-mugarten arteko mugarriak aitortzeko espedientea hasia erabaki zen, 1942an egindako mugaketa abiapuntua hartuta, eta horretarako eratu behar den batzordea izendatzea.

Beasaingo Udalak mugaketa-espedientea hasi zuen, eta, Gipuzkoako udal-mugapeak arautzen dituen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 18. artikuluekin bat etorritik, Ordiziako Udalak batzordea izendatu zuen, 2017ko irailaren 28ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez, eta honako pertsona hauek osatu zuten batzordea:

- José Miguel Santamaría Eceiza, Alkate-Udalburua.
- Arantxa Fernández Alvaredo, EAJ-PNVko zinegotzia.
- José Ignacio Iturrioz Gotor, EAJ-PNVko zinegotzia.
- Jon Eskisabel del Bosque, udal Aparejadora.
- Ana Urkizu Kerejeta, Udalbatzako Idazkaria.

Izendapen horren ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Beasaingo Udalarari eta aldameneko finken jabeen jakinarazi zitzaizkien erabakia.

Ezarritako prozedurari jarraituz, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere ordezkaria izendatu zuen Batzordean, mugaketa-eragiketari hasiera emanez.

Batzordeko ordezkari teknikoek 2018ko irailaren 19an egindako bileran mugaketa-eragiketarako irizpideak ezarri zituzten, espedientean jasotako dokumentazioan oinarrituta, eta bi udalek

términos municipales de Beasain y Ordizia respecto al octavo mojón.

En el mismo se acuerda iniciar expediente de reconocimiento de mojones entre ambos términos municipales partiendo del deslinde efectuado en el año 1.942 así como designar la comisión que ha de constituirse al efecto.


Iniciado el expediente de deslinde por el ayuntamiento de Beasain, se procedió de conformidad con el artículo 18 de la Norma Foral 2/2003, de 17 de marzo, Reguladora de las Demarcaciones Municipales de Gipuzkoa, a la designación de la comisión por parte del ayuntamiento de Ordizia, mediante acuerdo plenario de fecha 28 de septiembre de 2017, quedando constituida ésta por las siguientes personas:

- José Miguel Santamaría Eceiza en calidad de alcalde - presidente de la corporación.
- Arantxa Fernández Alvaredo, concejal de EAJ-PNV.
- José Ignacio Iturrioz Gotor, concejal de EAJ-PNV.
- Jon Eskisabel del Bosque, Aparejador municipal.
- Ana Urkizu Kerejeta, secretaria de la corporación.

Tras dicho nombramiento, el acuerdo fue comunicado a la Diputación Foral de Gipuzkoa, al Ayuntamiento de Beasain y a los propietarios de las fincas afectadas.

Siguiendo el procedimiento establecido, la Diputación Foral de Gipuzkoa designó su representante en la Comisión, dando inicio a las operaciones de deslinde.

Tras la reunión celebrada el 19 de septiembre de 2018 entre los representantes técnicos de la Comisión se establecen los criterios para las operaciones del deslinde en base a la documentación obrante en el expediente, a



Ordiziako Udala

2023IOSB0016

eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, ahoz behintzat, adostasuna eman zioten.

Nolanahi ere, gaia gelditu egin zen Beasaingo Udalak izan duen irizpide aldaketaren ondorioz.

Zentzu honetan, erantsi behar dugu, 12 Upabi "H.I.E.ko 12.1 egikaritze-unitatea birpartzelatzeko proiektuaren erregistroan inskribatzeko prozeduran, Tolosako Jabetza-Erregistratzaileak espedientea amaitzeko, administrazio-ziurtagiria eskatu die bai Ordiziako udalari bai Beasaingo udalari, espedienteak eragindako bi finka Ordiziako udal-mugarteari atxikitzeko.

Hori ikusita, mugaketa-espedientearekin jarraitu beharra ikusi zen, eta beraz, Ordiziako Udalak 2021eko irailaren 30ean egindako Osoko Bilkuran espedientea izapidetzeko batzorde berriaren izendapenak egin zituen. Zehazki, hurrengoak izendatu ziren:

- Adur Ezenarro Agirre, Ordiziako Alkate-Udalburua.
- Maitane Alvarez Garciandia, EH-Bilduko zinegotzia
- Jon Ander Caballero Zubelzu, EH-Bilduko zinegotzia
- Pilar Amenabar Zabala, udal arkitektoa
- Ainhoa Esnaola Zubeldia, Udalbatzako Idazkaria.

Era berean, erabakia Gipuzkoako Foru Aldundiari, Beasaingo Udalari eta aldameneko finken jabeei jakinarazi zitzaien.

lo que se da conformidad, al menos verbal, por parte de ambos ayuntamientos y de Diputación Foral de Gipuzkoa.

No obstante, el tema se paralizó debido al cambio de criterio del ayuntamiento de Beasain.


En este sentido, debemos añadir que, en el procedimiento de inscripción registral del Proyecto de Reparcelación de la unidad de ejecución 12.1 del A.I.U. "12 UPABI", el Registrador de la Propiedad de Tolosa solicita, tanto al ayuntamiento de Ordizia como al de Beasain, certificación administrativa de adscripción de dos fincas afectadas por el expediente al término municipal de Ordizia, al objeto de finalizar el expediente.

A la vista de ello, se precisó continuar con el expediente de deslinde y en la sesión plenaria celebrada con fecha de 30 de septiembre de 2021, se designaron los nuevos miembros de la Comisión. En concreto, se designaron los siguientes:

- *Adur Ezenarro Agirre, alcalde – presidente del ayuntamiento de Ordizia.*
- *Maitane Alvarez Garciandia, concejala de EH-BILDU*
- *Jon Ander Caballero Zubelzu, concejal de EH-BILDU*
- *Pilar Amenabar Zabala, arquitecta municipal*
- *Ainhoa Esnaola Zubeldia, secretaria de la corporación.*

Del mismo modo, dicho acuerdo se notificó a la Diputación Foral de Gipuzkoa, al Ayuntamiento de Beasain, así como a los titulares de las fincas colindantes.

En cualquier caso, también en este último



Ordiziako Udala

2023IOSB0016

Edonola ere, azken saiakera honetan ere espedienteak ez zuen jarraitu baina aurrekarietan aipatu dugun birpartzelazioaren arazoak bere horretan jarraitzen du eta beharrezkoa da, berriro ere prozedurari ekitea eta ondorioz, Batzordeko izendapen berriak egitea.

Honela beraz, Alkatetza honek hurrengo akordio proposamena aurkezten dio Osoko Bilkurari, azken honen eskumeneko gaia izaki apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22. artikuluari jarraiki:

PROPUESTA DE ACUERDO

LEHENENGOA.- Zortzigarren mugarriari dagokionez, Beasain eta Ordiziako udal-mugarteak mugatzeko espedienterako batzordeko kideak izendatzea. Pertsona hauek osatuko dute:

- Adur Ezenarro Agirre, Ordiziako Alkate-Udalburua.
- Maitane Alvarez Garciandia, EH-Bilduko zinegotzia
- Jon Ander Caballero Zubelzu, EH-Bilduko zinegotzia
- Pilar Amenabar Zabala, udal arkitektoa
- Ordiziako Udaleko idazkaria.

2.- Erabaki hau Gipuzkoako Foru Aldundiari, Beasaingo Udalari eta aldameneko finken jabeen jakinaraztea.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

intento el expediente se ha paralizado, aunque sigue existiendo el problema de la inscripción de la reparcelación antes mencionada, por lo que es necesario continuar con el procedimiento y, por tanto, nombrar a los nuevos integrantes de la Comisión.

Por tanto, esta Alcaldía eleva la siguiente propuesta de acuerdo al Pleno del Ayuntamiento, de conformidad con lo previsto en el artículo 22 de la Ley 7/1985 de 2 de abril:

PROPUESTA DE ACUERDO


PRIMERO.- Designar los miembros de la Comisión para el expediente de deslinde de los términos municipales de Beasain y Ordizia en relación al Octavo mojón, que estará constituida por las siguientes personas:

- Adur Ezenarro Agirre, alcalde – presidente del ayuntamiento de Ordizia.
- Maitane Alvarez Garciandia, concejala de EH-BILDU
- Jon Ander Caballero Zubelzu, concejal de EH-BILDU
- Pilar Amenabar Zabala, arquitecta municipal
- Secretario/a del Ayuntamiento de Ordizia.

2.- Notificar el presente acuerdo a la Diputación Foral de Gipuzkoa, al Ayuntamiento de Beasain, así como a los propietarios de fincas colindantes.

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:



Alkate jauna

Ordizia eta Beasain artean dago eremu bat mugen eztabaida dagoena bere garaian hasi zen prozesua argitzeko eta zehazteko mugen benetako lerroa eta egia da orain arte arrastaka doala eta berriro ekingo diogu eta horretarako CAF ere tartean dago eta bai dagokigu berriro ere batzordea izendatzea.

Sr. Alcalde:

Lo que está a debate es una zona entre Ordizia y Beasain. El proceso comenzó hace mucho tiempo y se suspendió. Ahora CAF también ha impulsado y lo retomaremos. Para ello, lo primero que hay que hacer es nombrar a la Comisión.

Bozketa:

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 16 (EH BILDU ORDIZIA 7, EAJ/PNV 6, ORDIZIA ORAIN -ELKARREKIN PODEMOS 2, GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

3.- Ordenantza fiskalen akats zuzenketa

3.- Corrección de errores de las ordenanzas fiscales


PROPOSAMENA - PROPUESTA

LEHENENGOA: 2023ko urriaren 9an, Ordiziako Udaleko Udaltzako hasierako onespina eman zion 2024ko Ordenantza Fiskalei eta Prezio Publikoen Ordenantzari.

PRIMERO. *Que con fecha 9 de octubre de 2023, el Pleno del Ayuntamiento de Ordizia aprobó inicialmente las Ordenanzas Fiscales y de Precios Públicos de 2024.*

BIGARRENA. ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA EKINTZA ADMINISTRATIBOAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN 6. Ordenantza Fiskalean, IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIK sailean 7. artikuluan dio "Urteko diru-sarrerak zenbatzeko [...] PFEZaren aitorpenaren

SEGUNDO. *En la Ordenanza Fiscal nº.6, REGULADORA DE TASAS POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS PÚBLICOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS, en el apartado IV. EXENCIONES, REDUCCIONES Y BONIFICACIONES, artículo 7, se indica que "para el cómputo de los ingresos anuales se tomará en consideración la base liquidable*



Ordiziako Udala

2023IOSB0016

oinarri likidagarria hartuko da kontuan". Datu horiek NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez lortuko lirateke.

de la declaración del IRPF", datos que se obtendrían a través del nodo de interoperabilidad NISAE.

HIRUGARRENA. Egiaztatu da NISAEk ez duela oinarri likidagarria ematen, zerga oinarri orokorra baizik.

TERCERO. *Se ha constatado que NISAE no proporciona la base liquidable sino la base liquidable general.*

LAUGARRENA. Bestalde, ZUZENBIDE PUBLIKOKO UDAL ZERGEN ETA BESTE DIRU-SARREREN GESTIOAREN, BILKETAREN ETA IKUSKAPENAREN GAINEKO ORDENANTZA NAGUSIAren 31. artikuluan egutegi fiskala onartu zen, bertan adierazten da zergetan eta tasetan hobariak eskatzeko epea abenduaren 1etik urtarrilaren 15era izango dela.

CUARTO. *Por su parte, la ORDENANZA GENERAL DE GESTIÓN, RECAUDACIÓN E INSPECCIÓN DE LOS TRIBUTOS Y OTROS INGRESOS DE DERECHO PÚBLICO LOCALES, en su artículo 31, aprobó el calendario fiscal, señalando que el plazo para solicitar las bonificaciones en el impuesto y tasas será del 1 de diciembre al 15 de enero.*

Hala ere, hasiera batean 2024ko urtarrilaren 15era arte ezarritako epeak 2024ko urtarrilaren 31ra arte luzatzea komeni dela ikusten da.

Que no obstante se aprecia la conveniencia de que los plazos inicialmente establecidos hasta el 15 de enero de 2024 se amplíen hasta el 31 de enero de 2024.

PROPOSATZEN dut:

PROPONGO:


LEHENENGOA. 6. ordenantza fiskaletik, eskatzaileen errenta neurtzeko parametro gisa dagoen oinarri likidagarria zerga oinarri orokorrarengatik aldatzea.

PRIMERO. *Que se modifique de la Ordenanza Fiscal nº.6 la base liquidable como parámetro para medir la renta de los solicitantes por la de base imponible general.*

BIGARRENA. Ordenantza Orokorren 31. artikuluan hobariak eta salbuespenak eskatzeko epeak aldatzea taula honetan zehazten den bezala:

SEGUNDO. *En el artículo 31 de la Ordenanza General modificar los nuevos plazos para solicitar las bonificaciones y exenciones tributarias tal y como se detallan en la siguiente tabla:*

KONTZEPTUA CONCEPTO	ESKAERA EPEA PLAZO DE SOLICITUD
Ondasun higiezin zerga. Impuesto Bienes Inmuebles.	
Famili ugarien hobaria Bonificación familias numerosas	2023/12/01 – 2024/01/31 01/12/2023 – 31/01/2024
Eguzki energiaren aprobetxamenduagatik hobaria Bonificación por aprovechamiento con energía solar	
Ez ohiko etxebizitzagatik %50eko errekaruaren salbuespena Exención recargo del 50% por vivienda vacía	2024/01/01 – 2024/03/15 01/01/2024 – 15/03/2024
Ibilgailuen zerga	



Impuesto de vehículos	
Famili ugarien hobaria <i>Bonificación familias numerosas</i>	
Ibilgailu historikoen hobaria <i>Bonificación vehículos históricos</i>	
Motor elektrikoa duten ibilgailuen hobaria <i>Bonificación vehículo de motor eléctrico.</i>	2023/12/01 – 2024/01/31 01/12/2023 – 31/01/2024
Ibilgailu hibridoen hobaria <i>Bonificación vehículos híbridos.</i>	
Gasarekin dabiltzan ibilgailuen hobaria <i>Bonificación vehículos con gas.</i>	
Salbuespena desgaitasunagatik <i>Exención por discapacidad</i>	
Hondakinen bilketaren tasa. Hobariak. <i>Tasa de recogida de basuras. Bonificaciones</i>	2023/12/01 – 2024/01/31 01/12/2023 – 31/01/2024

Eztabaida

Debate

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

<i>Alkate jauna:</i> hobari sistema berri bat jarri zen eta egia da bertan azaltzen zela zerga aitortpenaren arabera kalkuluak egingo zirela oinarria gaizki jarrita zegoen. Base liquidable ezin dugu jaso aldiz zerga oinarria eta horregatik egiten da akats zuzenketa egitea. Hori izango da	<i>Sr. alcalde:</i> se puso en marcha un nuevo sistema de bonificaciones. No obstante, se ha detectado un error, pues donde establece base liquidable debe decir base imponible.
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Bozketa:

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 15 (EH BILDU ORDIZIA 7, EAJ/PNV 7, ORDIZIA ORAIN -ELKARREKIN PODEMOS 2,)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA 1


Beraz Alkate jaunak proposamena gehiengoz onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- Kontu-hartzailearen ingerak, urriari dagozkionak (2023KERR0020, 21, 22, 23 eta 24)

4.- Nota de reparos de la Interventora correspondientes al mes de octubre (2023KERR0020, 21, 22, 23 y 24)


**KONTU-HARTZAILEAREN INGERA
ORRIA (2023/020):****NOTA DE REPAROS DE LA
INTERVENTORA (2023/020)****AURREKARIAK:**

Kontu-hartzaileari, honako kontratu hauek epez kanpo daudela jakinarazi diote idazkaritza sailetik:

ANTECEDENTES:

El Departamento de Secretaría da cuenta a la interventora de los siguientes contratos que están fuera de plazo:

Enpresaren izena / Nombre de la empresa	Kontratuaren xedea / Objeto del contrato	Kontratua / Contrato	Bukaera data / Fecha de finalización	Luzapenak / Prórrogas	2022an gastua / Gasto en 2022
Landarri S.L.U.	Hilerriaren zerbitzua / Servicio cementerio	2005/03/10	10 urte / 10 años 2015/03/01	Luzapen dekretua esleipen berri bat arte / Decreto de prórroga hasta nuevo contrato	32.468,49 €
Erro Koop. Elkartea	D'Elikatuz zentroaren kudeaketa / Gestión D'Elikatuz	2012/07/24	Gehienez 4 urte / max. 4 años 2016/07/24	Kontraturik gabe / Sin contrato	106.358,64 €
Euskaltel, S.A.	Zentralita eta mugikorak / Centralita y móviles	2014/05/20	2018/05/20	Luzatua esleipena atera arte / Prorrogado hasta adjudicación	34.946,16 €
Biok Zerbitzuak, S.L.	Pertsonal laborala kontratatze laguntza teknikoa / Asesoría en contratación laboral	Kontraturik gabe / Sin contrato			3.894,02 €
2008 Makelsako Gipuzkoa, S.L.	Inpresoraren mantenu kontratua / Mantenimiento de impresoras	Kontraturik gabe / Sin contrato			2.899,25 €
Ordiziako Musika Eskola S.L.	Musika eskola zerbitzua	Kontraturik gabe / Sin contrato		Urtero (kontraturik gabe) / Anual (sin contrato)	59.280,00 €
Jose Ramon Garmendia Garmendia	Zerbitzuetako lanak / Servicios	Kontraturik gabe / Sin contrato		Urtero (kontraturik gabe) / Anual (sin contrato)	27.954,05 €
Goxara S.L.	Eguneko zentroa eta etxez etxeko zerbitzua / Servicio de Centro de día y ayuda a domicilio			luzatua esleitu arte / Prorrogado hasta licitación	341.054,16 € 344.627,78 €
Repsol Butano, S.A.	Urdaneta eskolako propanoa				3.592,33 €
Alotza Haur Eskolako guraso batzordea	Alotza Haur Eskolako kudeaketa / Gestión de Alotza Haur Eskola		2022/06/08		726.900,00 €
Cuarhtoset Talent & Technology, S.L.	Nominen kalkulua / Cálculo de nóminas	Kontraturik gabe / Sin contrato			18.595,71 €



IZT KOOP. ELK.	Sistema informatikoaren mantenu lanak / Mantenimiento del sistema informático	Kontraturik gabe / Sin contrato			18.258,21 €
Izan intervención familiar comunitaria, S.L.	Esku hartze soziohezitzaile eta psikosoziala ematea / Intervención socioeducativa y psicosocial	Kontraturik gabe / Sin contrato	2022/10/21		277.684,49 €
EULEN, S.A.	Udal Eraikinen garbiketa zerbitzua	Kontraturik gabe / Sin contrato	2022/11/16		191.596,09 €
ENDESA ENERGIA, S.A.	Argindarra Alumalan	Kontraturik gabe / Sin contrato			7.723,85 €
Laia S.Coop. Txikia	Ingurugiro zerbitzuak	Kontraturik gabe / Sin contrato	2015/04/01		17.914,08 €

A) Aplikagarria zaizkion arauak:

a.1) 9/2017 Kontratu Publikoen Legea, azaroaren 8koa.

“29. artikulua. Kontratuen iraupen-epea eta kontratuen exekuzioa.”

Sektore publikoko kontratuen iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai, kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.

Bigarren xedapen gehigarria. Toki erakundeetarako kontratazio-arau bereziak.


A) Normas aplicables:

a.1) Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público

“Artículo 29. Plazo de duración de los contratos y ejecución de los contratos.”

Sin perjuicio de las normas especiales aplicables a determinados contratos, la duración de los contratos del sector público deberá establecerse teniendo en cuenta la naturaleza de las prestaciones, las características de su financiación y la necesidad de someter periódicamente a concurrencia la realización de las mismas.

Disposición adicional segunda. Normas específicas de contratación en las Entidades Locales.



Ordiziako Udala

2023IOSB0016

Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

“35. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia”:

1. Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuek aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:

Hala egokituz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo errubrikaren kontura ordainduko den.

a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

“67. artikulua. Legezatasunaren kontrola.”

1. Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezatasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen

Corresponden a los Alcaldes y a los Presidentes de las Entidades locales las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos de obras, de suministro, de servicios, de gestión de servicios públicos, los contratos administrativos especiales, y los contratos privados cuando su importe no supere el 10 por 100 de los recursos ordinarios del presupuesto ni, en cualquier caso, la cuantía de seis millones de euros, incluidos los de carácter plurianual cuando su duración no sea superior a cuatro años, siempre que el importe acumulado de todas sus anualidades no supere ni el porcentaje indicado, referido a los recursos ordinarios del presupuesto del primer ejercicio, ni la cuantía señalada.

“Artículo 35. Contenido mínimo del contrato”:


1. *Salvo que ya se encuentren recogidas en los pliegos, los contratos que celebren los entes, organismos y entidades del sector público deben incluir, necesariamente, las siguientes menciones:*

El crédito presupuestario o el programa o rúbrica contable con cargo al que se abonará el precio, en su caso.

a.2) Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa.

“Artículo 67. Control de legalidad”.

1. *La función interventora en su aspecto de control de legalidad tendrá por objeto fiscalizar todos los actos de las Entidades locales y sus Organismos*



Ordiziako Udala

2023IOSB0016

egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

Autónomos que den lugar al reconocimiento y liquidación de derechos y obligaciones o gastos de contenido económico, los ingresos y pagos que de aquéllos se deriven, y la recaudación, inversión y aplicación, en general, de los caudales públicos administrados, con el fin de que la gestión se ajuste a las disposiciones aplicables en cada caso.

2. Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

2. *El ejercicio de la expresada función comprenderá:*

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiazkoa.

a) *La intervención crítica o previa de todo acto, documento o expediente susceptible de producir derechos u obligaciones de contenido económico o movimiento de fondos de valores.*

b) Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.

b) *La intervención formal de la ordenación del pago.*

c) Ordainketaren kontu-hartze materiala. Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57.artikuluaren aurreikusitako fondoaren erabilpenerako amankomunatuak erantsiko zaie.


c) *La intervención material del pago. Salvo que por acuerdo del Pleno sea autorizada la realización de este control por muestreo, la firma del Interventor se añadirá a las mancomunadas de disposición de fondos previstas en el artículo 57 de esta Norma Foral.*

“70. artikulua. Ingerak.”

Artículo “70. Reparos”.

1. Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

1. *Establece la obligación del Interventor, en caso de mostrarse en desacuerdo con el fondo o con la forma de los actos, documentos o expedientes examinados, de formular sus reparos por escrito antes de la adopción del acuerdo o resolución.*



Ordiziako Udala

2023IOSB0016

2. Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

- Espedientearen funtsezko beharrezko edo izapidetza alde batetara utzi direnean.

3. Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki- administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasanak arautzen dituen Legearen testu bategina:

“213. artikulua. Barneko kontrola.”

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten batigorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzailetza Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

2. Si el reparo afecta a la disposición de gastos, reconocimiento de obligaciones u ordenación de pagos, se suspenderá la tramitación del expediente hasta que aquél sea solventado en los siguientes casos:

- En los casos de omisión en el expediente de requisitos o trámites esenciales.

3. Cuando el órgano a que afecte el reparo no esté de acuerdo con el mismo, corresponderá al presidente de la Corporación resolver la discrepancia, siendo su resolución ejecutiva. Esta facultad no será delegable en ningún caso.


a.3) Ley 27/2013, de 27 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local.

En el segundo artículo se modifica el Texto Refundido de la Ley reguladora de Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004 de 5 de marzo, quedando del siguiente modo el Texto Refundido de la Ley reguladora de Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004 de 5 de marzo:

Artículo “213. Control interno.”

Los órganos interventores de las Entidades Locales remitirán con carácter anual a la Intervención General de la Administración del Estado un informe resumen de los resultados de los citados controles desarrollados en cada ejercicio, en el plazo y con el contenido que se regulen en las normas indicadas en el párrafo anterior.

Artículo “218. Informes sobre resolución de discrepancias”.



Ordiziako Udala

2023IOSB0016

1. Kontu-hartzaitzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitura duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzaitzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.

Irregularitasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira

1. *El órgano interventor elevará informe al Pleno de todas las resoluciones adoptadas por el presidente de la Entidad Local contrarias a los reparos efectuados, así como un resumen de las principales anomalías detectadas en materia de ingresos. Dicho informe atenderá únicamente a aspectos y cometidos propios del ejercicio de la función fiscalizadora, sin incluir cuestiones de oportunidad o conveniencia de las actuaciones que fiscalice.*


Lo contenido en este apartado constituirá un punto independiente en el orden del día de la correspondiente sesión plenaria.

El presidente de la Corporación podrá presentar en el Pleno informe justificativo de su actuación.


2. *Sin perjuicio de lo anterior, cuando existan discrepancias, el presidente de la Entidad Local podrá elevar su resolución al órgano de control competente por razón de la materia de la Administración que tenga atribuida la tutela financiera.*

3. *El órgano interventor remitirá anualmente al Tribunal de Cuentas todas las resoluciones y acuerdos adoptados por el presidente de la Entidad Local y por el Pleno de la Corporación contrarios a los reparos formulados, así como un resumen de las principales anomalías detectadas en materia de ingresos. A la citada documentación deberá acompañar, en su caso, los informes justificativos presentados por la Corporación local.*

Han llegado las siguientes facturas que corresponden a contratos que están en situación irregular:



<u>RREPARO FAKTURAK</u> <u>FACTURAS REPARO</u>	<u>Jasotako fakturak / Facturas recibidas</u>		
HORNITZAILEA PROVEEDOR	FAKTURA ZENBAK. Nº FACTURA	FAKTURA DATA FECHA FACTURA	ZENBATEKOA IMPORTE
IZAN INTERVENCION	89	2023/07/26	19.679,48
IZAN INTERVENCION	90	2023/07/26	5.002,91
GARMENDIA GARMENDIA, JOSE RAMON	1287/2023	2023/07/05	3.411,29
IZT KOOP.E	2023//1277	2023/07/27	1.623,00
EULEN, S.A.	3847265	2023/07/31	2.888,11
EULEN, S.A	3847252	2023/07/31	519,74
EULEN, S.A.	3847262	2023/07/31	365,42
EULEN, S.A.	3847259	2023/07/31	2.993,71
EULEN, S.A.	3847251	2023/07/31	644,48
EULEN, S.A.	3847253	2023/07/31	748,42
EULEN, S.A.	3847264	2023/07/31	873,16
EULEN, S.A.	3847257	2023/07/31	166,31
EULEN, S.A.	3847258	2023/07/31	4.781,61
EULEN, S.A.	3847254	2023/07/31	582,11
EULEN, S.A.	3847260	2023/07/31	1.829,48
EULEN, S.A.	3847263	2023/07/31	187,10
EULEN, S.A.	3847256	2023/07/31	498,94
EULEN, S.A	3847255	2023/07/31	207,90
EULEN, S.A.	3847261	2023/07/31	83,16
LAIA S.COOP.	21	2023/06/30	1.492,84
LAIA S.COOP.	25	2023/07/28	1.492,84
ERRO KOOP. ELKARTEA	010UTB.23	2023/08/01	8.476,55
LANDARRI, S.L.U.	2306988032	2023/06/13	444,70
LANDARRI, S.L.U.	2306988042	2023/06/19	88,78
LANDARRI, S.L.U.	2306988047	2023/06/21	138,61
LANDARRI, S.L.U.	2306988092	2023/06/27	355,76
LANDARRI, S.L.U.	2306988091	2023/06/27	355,76
LANDARRI, S.L.U.	2306988122	2023/06/30	711,53
LANDARRI, S.L.U.	2306988121	2023/06/30	355,76
LANDARRI, S.L.U.	2306988123	2023/06/30	355,76
LANDARRI, S.L.U.	07988088	2023/07/31	444,70
LANDARRI, S.L.U.	4151	2023/07/20	138,61



LANDARRI, S.L.U.	4152	2023/07/19	355,76
LANDARRI, S.L.U.	4153	2023/07/18	889,40
LANDARRI, S.L.U.	4154	2023/07/18	444,70
LANDARRI, S.L.U.	2306988014	2023/06/06	711,53
ALOTZA HAUR ESKOLA	97	2023/08/11	30.287,50
GOXARA	23/00654	2023/07/31	24.239,37
GOXARA	23/00721	2023/08/03	42.479,33
GUZTIRA			€

ONDORIOAK:

- a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Aipatu behar da, gainera, Iberdrolarekin eta Euskaltelekin ordainketak helbideratuak dituela Ordiziako Udalak.
- b) Idazkaritzatik eta kontu-hartzaitzatik irregulartasun egoeran dauden kontratuak zuzentzeko plangitza egin da. Modu honetan, honako hauek dira momentuz emandako aurrera pausoak:

Zuzentze bidean daudenak:


- **Ingurugiro zerbitzuak**, (orain arte Laia S. Coop. Txikia): Negoziatutako prozedura bidez esleitu zen kontratua 2013an eta 2015ean amaitu zen. Harrez geroztik egoera irregularrean egon da. Ingurumen Teknikariaren postua sortzea eta hau lanpostuen zerrendan sartzea litzateke egokiena egoera erregularizatzeko eta legezatzeko.
- **Hilerriko zerbitzua**, (orain arte Landarri S.L.U.): Lizitazio berrira ateratzeko prozesua abian jarri da. Lizitazioa ateratzeko Ordenantza berria onartu behar da. Lanketan ari gara, lehenik kolunbario berriak amaitu behar

CONCLUSIONES:

- a) *Teniendo en cuenta que todos los contratos detallados en la lista están en situación irregular, deben actualizarse cuanto antes. Hay que señalar, además, que el Ayuntamiento de Ordizia tiene domiciliados pagos con Iberdrola y Euskaltel.*
- b) *Desde secretaría e intervención se ha planificado la corrección de contratos en situación de irregularidad. De esta manera, los avances que se han dado de momento han sido los siguientes:*

En subsanación:

- **Servicios Medioambientales**, (hasta ahora Laia S. Coop. Txikia) *El contrato se adjudicó mediante procedimiento negociado en el año 2013 y el mismo finalizó en 2015. Desde entonces está en una situación irregular. La creación del puesto de Técnico/a de Medio Ambiente y su inclusión en la RPT sería lo más adecuado para regularizar y legalizar la situación.*
- **Servicio del cementerio** (hasta ahora Landarri S.L.U.): *se ha puesto en marcha el proceso para la nueva licitación. Para sacar la licitación hay que aprobar la nueva Ordenanza. Estamos en la elaboración, primero había que acabar con los nuevos*



Ordiziako Udala


2023IOSB0016

ziren, jada amaitu dira. Eta azken unean musulman erlijioa duten hildakoak lurperatzeko aukerak aztertzen dabilta. Nola barneratu aztertzen gabiltza. 2023 urtean ordenantza berria eta lizitazioa egingo da. Zerbitzuetako arduraduna eta kontratazio teknikariak jada kontratazio plangintzan barneraturik dute.

- D'Elikatuz zentroaren kudeaketa (orain arte Erro Koop. Elkarte): Lizitazio berria ateratzeko prozesua abian jarri da. Kontratazio teknikaria egun idazkari lanetan dabil, Idazkari titularra apirilean etorriko da.
- Telefonia zerbitzua, (orain arte Euskaltel, S.A): Inbentarioa egiteko arazoak izan ditugu. Martxoan administrari bat izango dugu informatikaz arduratuko dena, eta inbentario eta txukuntzeak egin ondoren lizitazioa egingo da. Baina jakin behar dugu loteka edo nola egin behar den (zentralita barneratuz, odeian zentralita ezarriz...).
- Inpresoren mantenimendu kontratua, (orain arte 2008 Makelsako Gipuzkoa, S.L): lizitazio berria abian jartzeko hainbat aukera aztertzen ari dira.
-
- Etxez etxeko zerbitzuen kontratua, (orain arte Goxara S.L): lizitazio berria ateratzeko prozesua abian jarri da. Zerbitzuan lizitaziorako pleguak eginda daude, baina langileen eta sindikatuen artean ika-mika dute lan hitzarmenean. Hitzarmena sinatzen ez duten kasuan aurreko hitzarmena egongo litzateke indarrean, eta langileen soldatetan eragina nabaria da (urte asko dabilta soldata igoera gabe). Muga ezarri diegu, ez badute otsaila erdirako afera konpontzen guk gure prezioekin eta

columbarios, ya han terminado. Y en el último momento se estudian las posibilidades de enterrar a los fallecidos de religión musulmana. Se está estudiando cómo interiorizarlo. En el año 2023 se realizará una nueva ordenanza y licitación. El responsable de los servicios y la técnica de contratación ya están integrados en la planificación de la contratación.

- *Gestión del centro D 'Elikatuz (hasta ahora Erro Koop. Asociación): se ha puesto en marcha el proceso para la nueva licitación. La Técnico de Contratación trabaja actualmente como secretaria, el secretario titular vendrá en abril.*
- *Servicio de telefonía (hasta ahora Euskaltel, S.A.): Hemos tenido problemas para hacer inventario. En marzo tendremos un administrativo que se encargará de la informática y una vez realizados los inventarios y arreglos se licitará. Pero tenemos que saber si se debe hacer por lotes o cómo (interiorizando la centralita, fijándola centralita en la nube).*
- *Contrato de mantenimiento de Impresoras (hasta ahora 2008 Makelsako Gipuzkoa, S.L): se están estudiando diferentes alternativas para la puesta en marcha de la nueva licitación.*
- *Contrato de ayuda a domicilio (hasta ahora Goxara S.L): se ha puesto en marcha el proceso para sacar la nueva licitación. Se han elaborado los pliegos de licitación del servicio, pero existe un conflicto entre trabajadores y sindicatos por el convenio colectivo. En caso de que no firmen el convenio estaría en vigor el convenio anterior y la repercusión salarial de los trabajadores es evidente (llevan muchos años sin subida salarial). Les hemos impuesto un límite, si no solucionan el asunto para mediados de febrero nosotros los sacaremos con nuestros precios y*



Ordiziako Udala

2023IOSB0016

kalkuluekin aterako ditugu. Udalak nahiz eta afera honetan zerikusirik ez izan, zerbitzu publikoa denez lehen mailako langileen greba ekidin nahi izan du. Horregatik dago geldituta.

cálculos. Aunque el Ayuntamiento no tiene nada que ver en este asunto, al ser un servicio público ha querido evitar la huelga de los trabajadores de primera. Por eso está paralizada.

- Eguneko zentroaren kontratuan aldiz arazo pare bat suertatu da. Egun eraikinaren eguneratzea egiten gabiltza eta bi zerbitzu ematen dira arreta eta eguneko zentroa. Bi lizitazioak batera atera nahi dira baina obra amaitu arte ezin dira atera, eragina dutelako eta enpresa berak egitea lehenesten delako.
- Musika eskola zerbitzua, (orain arte Ordiziako Musika Eskola S.L.): Arazoak ditugu diru-laguntza bidez egiten zen zerbitzu hau juridikoki ondo txukuntzeko. Teknikari berri orain gutxi hasi da lanean eta eguneratzen utzi diogu. Laster pleguak egokitzeko eskatuko diogu.

- *En el contrato del centro de día ha habido un par de problemas. Actualmente se está realizando la actualización del edificio y se prestan dos servicios de atención y centro de día. Ambas licitaciones se quieren sacar a la vez pero no se pueden sacar hasta la finalización de la obra porque influyen y se prioriza que sean realizadas por la misma empresa.*


- *Servicio de Escuela de Música, (hasta ahora Escuela de Música de Ordizia S.L): Tenemos problemas para adecuar jurídicamente este servicio que se hacía vía subvención. La nueva técnico ha empezado a trabajar hace poco y le hemos dejado actualizarlo. En breve le pediremos que adapte los pliegos.*

Zuzentzeke daudenak:

- Zerbitzuetako lanak (orain arte Jose Ramon Garmendia Garmendia): 2023an zehar erregularizatuko da, zerbitzuetako egoera zein den aztertuko da, zerbitzu honen beharra aztertuz.
- Pertsonal laborala kontratatzeko laguntza teknikoa, (orain arte Biok Zerbitzuak, S.L.): Zerbitzu honen beharra aztertuko da. Pertsonal saileko teknikari postua sortu eta bete zen. 2023ko urtarrilean teknikaria joan da eta teknikari berri bat hasiko da. Teknikari berria barneratzen denean lanketa egiten jarriko da, bitartean aholkularitza zerbitzu honekin jarraitzeko beharra ikusten da, baina eskaintzen dizkiguten zerbitzuak berraztertuz. 2023an kontratu txiki bat

Pendientes de subsanar:

- *Trabajos en servicios (hasta ahora Jose Ramon Garmendia Garmendia): se regularizará a lo largo de 2023, se analizará la situación de los servicios, analizando la necesidad de este servicio.*
- *Asistencia técnica para la contratación de personal laboral (hasta ahora Biok Zerbitzuak, S.L.): se analizará la necesidad de este servicio. Se creó y cubrió el puesto de técnico del departamento de personal. En enero de 2023 se marchó el técnico y comienza un nuevo técnico. Cuando se incorpore el nuevo técnico se pondrá a trabajar en esta licitación, mientras tanto se ve la necesidad de continuar con este servicio de asesoramiento, pero revisando los servicios que nos ofrecen. En 2023 se deberá realizar un contrato menor para la*



Ordiziako Udala

2023IOSB0016

egingo beharko da zerbitzu hau kontratatzeko eta egoera erregularizatuz; betiere pertsonaleko teknikari postua hornitu bitartean.

contratación de este servicio, regularizando la situación, hasta que se provea el puesto de técnico de personal.

- Taulan agertutako gainerako kontratuak: lizitazioan atera beharko da zerbitzua.
 - *Resto de los contratos mencionados en el cuadro: tendrá que licitarse el servicio.*
- c) Bien bitartean, zerrendatutako kontratu irregularren fakturen ordainketen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez Alkateak hartutako ebazpen guztiekin batera eta puntu bereizi bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai- zerrendan.
- c) *Mientras tanto, se paralizará el trámite de pago de las facturas de los contratos irregulares detallados hasta que lo resuelva el alcalde. La interventora enviará este informe al Pleno, con las resoluciones adoptadas por el alcalde en relación a los reparos señalados e incluirá un punto independiente en el orden del día del correspondiente Pleno.*


2023/1089. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

Kontu-hartzaileak 2023ko abuztuaren 19an egindako 2023/020 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.

- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie.
